

DENOK BAT**Ikasle laguntzaileak¹**

Norbaiti arazo bat konpontzen edo laguntzen diogunean lan bat bukatzen, taldean integratuta sentitzen edo beste edozertan, elkarrengandik hurbilago eta taldean inplikatuago sentitzen gara.

Baina laguntza ematea edota jasotzea ez da erraza izaten. Batzuetan ez gara ondo sentitzen eman edo jasotzen dugunean.

Orain proposatzen den jarduera honetan laguntza ematea eta laguntza jasotzea da erronka.

Ikasgela batean esku hartzen duten irakasleen artean alde zuzenetik hitz egin beharko dute eta beharrak eta aukerak antzeman.

Gelan zeregina planteatuko da: behar dutenei laguntza ematea; hau da, batzuek ematea, eta beste batzuek jasotzea, gaitasunen eta beharren arabera. Arlo batzuetan ikasle batzuk izango dira laguntzaileak eta beste arlo batzuetan beste ikasleak izango dira, beti ere haiekin adostuta.

Garrantzitsua da gai hau gelan planteatzea eta adostea zertan behar duten laguntza batzuek eta zertan lagundu dezaketen besteek.

Laguntzaileen eginkizunak hauek izango dira:

- ✓ Irakasleek emandako gaia berriz azaltzea, laburtzea...
- ✓ Etxeko lanak gogoraraztea...
- ✓ Ariketak egiten laguntzea...
- ✓ Azterketak prestatzen laguntzea...
- ✓ Kirolean laguntzea...
- ✓ ...

Laguntza jasoko dutenek identifikatuko dute zertan behar duten laguntza eta lagunduko dutenek identifikatuko dute zertan sentitzen diren gai laguntza emateko (ikus taula aurrerago).

¹ Ezeiza Urdangarin, B., Izagirre Gorostegi, A. eta Lakunza Arregi, A.: *Adimen emozionala (12- 14 urte bitartek ikasleentzat)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 2008. Moldatua.

Egokia izan daiteke ikasleek binaka kontratu moduko zerbait egitea haien artean, errespetuzko harremanak sustatuko direla bermatzeko.

LAGUNTZARAKO AKORDIOA

..... ikasturtea,maila.

Nik,, laguntza emango diot-i,

..... arloanrako

.....n, 201...ko.....ren..... (e)an

Azkenik, irakasleak laguntzaileen lana baloratu eta euren zeregina indartzeko aukera izango du (emaitzetan positiboak jarriz, haien laguntza gorai patuz... edo egokiak iruditzen zaizkion baliabideak erabiliz).

Bestaldetik, baloratu beharko da hartutako neurri horiek positiboak izan diren emaitza akademikoetan, baita gelako giroan zein ikasleen arteko harremanetan ere.

LAGUNTZA EMAN		LAGUNTZA JASO	
Izena	Zertan	Izena	Zertan